

Europar Batasunetik kanpo esportatzen duten gipuzkoako enpresen kopurua %12 handitu da urteko lehen sei hilabeteetan

Donostia - 2015eko Uztailaren 3a

Gipuzkoako Bazkondeak urteko lehen sei hilabeteetan igorritako esportaziorako agiriak adierazten dute gipuzkoako enpresek Europar Batasunetik kanpo egindako esportazioak nabarmenki hazi direla.

Esportaziorako agiriak eskatu dituzten gipuzkoako enpresen kopurua %12 hazi da urteko lehen sei hilabeteetan, 2014 urteko datuekin alderatuz. Era berean, esportazioarako agiriak, merkantziaren jatorria bermatzen dutenak eta esportatutako produktoak bidaliko diren herrialdean erabili ahal izateko egokiak direla egiaztatzen duten agiri hauen izapideak %11 hazi dira. Hazkundera gehien nabarmendu den hilabeteetan ekainean izan da, %30eko igoerarekin joan den urteko ekainarekin konparatuz.

Esportaziorako agiriak eskatzen diren herrialde dagokionez, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak, Txina, India, Kuba eta Aljeria dira merkantzia bertara esportatu ahal izateko agiri gehien eskatzen direnak.

Nabarmenezkoa da ere aldi baterako esportazioen igoera, ATA koadernoaren igoera, urteko lehen seihilekoan %70 hazi direlarik. Aldi baterako esportazioak kanpoan egin behar diren instalazioak, makinaren baten abiaraztea edo antzekoak egiteko eraman behar den material profesionalarekin batera dijoazten agiriak dira, oso erabiliak ere feria komertzialetan gure enpresek erakusteko makinaria eraman behar dutenean. Datu hauek guztiak, gure enpresak kanpora ateratzeko duten joera indartu dela adierazten dute eta era berean, gipuzkoako enpresak egunetik egunera nazioartekotzean murgilduta daudenaren adierazle dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347